

---

# EUSKARA.<sup>1</sup>

---

## (A. LARRAMENDI-RI)

---

¿Zér esan, jáunak, ¿zér itz donkitu, nere izkeran, maisuen maisuari?...

Ala nola Eguzkia irtetzean, izárrak ezkututzen diran, ala ikusten ditut gaur euskal-izkribatzalle argienak Larramendi-ren aurrean, eta nik nitaz aitortzen det eznezaketala beste gauzik egiñ, ezpada aurrák bere aitarekiñ egiten duena, esaten dizkanean besterentzat balio ez duten itz-erdicho banakak, amoriozko begiratu batean gozoro bildurik.

Denok dakigu gure Aitaren bizia eta obrak dirala: gloria Zeruan, euskara lurrean.

¡Euskara!... ia ill dala entzuten nago aspaldian, baña ez da illko Jaio; amak euskaraz erakutsi; azi ta gizon egiñ euskararen musika entzunik; A. Larramendi bezelako gidari bat bidean arkitu, eta gero, eguna arratsaldean illtzen dijoan bezela, obironz alderatzen ari geranean, ¿geren buruak ukatu ta ill? ¿Ez da geren buruak ukatzea euskaldunak ez generala esatea? Eta ¿nola esan euskaldunak generala euskaraz itz egiten ezpadegu? Beren izkúntzak aztuko balituzte ¿izango litzake gaztelau, franzes edo ingelesik? Norbaitek esangodu ez duela oraiñ euskarak beste izkuntzakainbat balio ogia eta dirua irabazteko; ez det ukatzen. Baña niz dakitana da ez dala gizona ogiz eta diruz bakarrik bizitzeko Jainkoak egiña, eta ez dala, eziñ izan litekela, gauz egokia

---

(1) Discurso de D. Antonio Arzác, leído por su autor en la Sesión literaria en honor del P. LARRAMENDI, celebrada en la Casa Consistorial de Andoain la tarde del 28 de Diciembre de 1890.

ta zuzena gure gurasoak zituzten izkuntza eta oituretaz aztutzea, bere-taz ernegaturik bezela. Nik ez; euskaldúnak, bakarrik geldituko banaiz ere. Burni-bide eta gañerako aurreramenduak; Elizak bedeinkaturik denborak dakartzienak, ongi etorriak izan bitez, beren bitartez erri guztiak bat bezela egiñik; baña ¿onegatik itzali bear degu gure erriari, echeari eta familiari diogun amorioa?

¡Euskara!... eri dago, bai!, baña ez da illko; ta sendatu liteke euskaldunok ala nai badegu. Euskara ill... ez!, eziñ!, eta illtzen utzi-ko bagenu ere ez litzake illko, bada, itz itsusi, erneguzko eta blasfe-miazkorik ezagutzen ez duen eta sekulan beretaz kutsutu ezlitenen iz-kuntza garbiari eziñ falta lekiok Zeruko laguntza; Zerua onratzeko biziko da beti gure mendi-kolkoetan. Gañera, zabaldukoda munduan: alde guztietako gizon jakintsuak ari dira gaur bera ikasi eta miresten, eta emendik, Andoain, Larramendiren seaskatik, bigal zaizkategun oraiñ eskerrik beroenak.

¡Euskara!... ¡Zenbat edertasun gordetzen dituzun! eta au da bat: ¿nórk adierazi lezake nolako eta norañokoa dan gure mendiyetako kantetan banatu dezun likurt gozoa?... ¡A!... kontu aundiarekiñ egon izandu naiz, frankotan, beste erriyetako mintzo eta jolasak entzuten, baña batean ere ez det nik arkitu zure atsegintasun paregabea. Egia da; nere lurretik kanpora, chorien kántak berak legorrak bezela iru-ditzen zaizkit.

¡Euskara!... biziko da, ta biziko da gure echean, elizan, eskolan, mendi ta zelaietan, kale eta plazetan, emen, Ameriketan, euskaldun bat bizi dan alde guztietan.

Onra dezagun ¡bai! A. Larramendi, baña ez bakarrik gaur, ez bakarrik emen; baizik non nai ta beti. ¿Nola? Onraturik Euskara.

